

sukaldaritza

sukaldaritza gaur euskadin

Une honetan Euskadiko sukaldaritza bere historian zeharreko gailurrik gorenean aurkitzen da. Mundu guztian zehar hedatu da euskal sukaldaritzaren ospea: Kinshasa, Lugano, Madrid, Burdeos, Wiesbaden, Barcelona eta beste hainbat lekutan Euskadiko, Gipuzkoakoak bereziki, zenbait sukaldarik bere jakintza aurkeztu du.


Idatzi honen bidez sukaldaritza beste hainbat profesionali atea ireki nahi dizkiot, sukaldaritza eta honen ondoko harreman guztiak erabat alda ditzan; sukaldeko atea irekiz lortuko

«Bella epoque» garaiko sukaldaritza harek ez du etorkizunik. Piskana piskana hiltzen ari da, ezin diolako orduko bideari ja-



rraitu. Orduko janari bat gaur prestatuko balitz pertsona bakoitzeko 30 - 40.000 pezeta balioko luke. Are gehiago, janari haik prestatzen denbora asko behar izaten zuten eta gehienetan gorputzerako oso pisuak izan ohi

jakintsu honek jokaera honen bidez lehengo, sukaldaritza faltsu, txar eta kapritxosoari egurra ematen zion.




MONDEJURIK EZ !

Sukaldariak hezi egin behar du eta jan dietetikoak prestatzen hasi beste denak baztertuz. Jaki arinak, jan errazak prestatu behar dira, bestenaz, osasunerako kaltegarriak izan daitezke. Mondejua oso gozoa izango da bainan 40° tan urtzen diren grasak jaten hasten baldin bagara bihotzarentzat markapasoa, poliester-eko urdaila, platinoko gerri eta belaunetan iltzeak jarri beharko dizkigute. Eta nik zera diot: MondejuriK ez!

Janariak geroz eta gutxiago egin behar dira, barazkiak gaur egosten ditugun baino gutxiago egosi, pastak ere gehiegi egosten ditugu, entsaladak askoz gatz gutxiagorekin eta gozokiak askoz gozo gutxiagorekin jan behar ditugu.

Azkenik, gusto ezberdinetako gauzak nahastu behar ditugu eta txorakeria badirudi ere jaterako nola halako armonia bat lor dezakegu.



dute sukaldaritza berri baten hildoa.

Hau ez balute egingo, askotan arraina edo oiloa jaten duten ez lukete bereiziko. Eta hau ez dedin gerta, sukaldariak betiko jendearen gustoa ezagutu behar ditu. Ez da turista bati zerbitzea, edo gehienetan etxe horretan jaten duen bati zerbitzea gauza bera.

ziren. Orduan sufritu ere egiteko denbora bazuten, gaur horretarako denborarik ez dugu izaten. Nik neronek denbora faltaz ez dut sufritzen, denbora izango banu askozaz gehiago sufrituko nuke.

1956gn urtean hil zen Curnonsky-k bere ikasleei hauxe esaten zien: «Janaria prestatzerakoan, jan behar duenak zer jaten duen jakin dezala kontutan hartu beti. Gauza errazak egin bati». Gizon

K. ARGIAÑO